

## Amaierako onespina

† Jauna zuekin.

—Eta zure espirituarekin.

† Bedeinka zaizela Jainko ahalguztidunak:

Aitak eta Semeak eta Espiritu santuak.

—Amen.

† Zoaze Jaunaren bakean.

—Eskerrak Jainkoari.

**GARIZUMAN**

$\text{♩} = 60$

Dei e - gin - go deust, Nik en - tzun - go, os - pez jan - tzi e - ta li - bra - tu - ko.

Bi - zi lu - ze - a Nik e - mon - go, sal - ba - me - ne - ra e - ro - an - go.

1 Goigoi - ko Jau - na ba - bes do - zu - na, e - san zu - re Jaun o - na - ri:

"Oi Jain - ko, Zeu - gan dot kon - fi - an - tza, Zeu zai - tut bi - zi ta sa - ri.

2. Bere aingeruak ditu ipini zure zaindari bidean, zuk estropezu ez egiteko bideko harri artean.
3. Jaunari deutso begiratuko ta distiratsu egongo; hark aurpegia alai izango eta ez da lotsatuko.
4. Sortu zuk nigan bihotz garbia, ene Jainko, ni barritu; bialdu zeure Espiritua, nire barrua sendotu.
5. Poztu zaiteze, ta Jerusalem maitatu dozuen danok zoriontzu\_izan, egun baltzetan dolu egin zenduenok.
6. Bide zuzena, bizi\_emoilea deustazu erakutsiko. Alaitasunez beteko nozu zeure aurrean betiko.



HAUSTERRE  
...DE CENIZA

(Elebitaz)

Jaungoikoaren Bildotsa, zeuk kentzen dozu munduko pekatua:

*Erruki, Jauna.*

Jaungoikoaren Bildotsa, zeuk kentzen dozu munduko pekatua:

*Erruki, Jauna.*

Jaungoikoaren Bildotsa, zeuk kentzen dozu munduko pekatua:

*emoiguzu bakea.*

## JAUNARTZEA

† Hona hemen Jainkoaren Bildotsa, hona munduko pekatua kentzen dauena: zorientsuak honen mahaira deituak:

- JAUNA, NI EZ NAZ INOR ZU NIRE ETXEAN SARTZEKO,  
BAINA ESAIZU HITZ BAT ETA OSATUKO NAZ.

### Jaunartzerako abestia

1) **Basamortuan zehar** dabila Jainko-herria erromes; argi, bake ta maitetasuna dakarren zeruen galdez. Agindu-lurra Jainkoak deutso emongo kateen orde; penak utzita poztu daitezcan bizi barri baten pozez. **R/.**

**R/. Zure pozetan goaz, Jerusalem barri;  
fedea zuregan dau bere ziment-harri.  
Maitasunak zu zaitu bere berogarri.  
Bizitu itxaropena zure herriari.**

2) Israel barri kurutzearen ondoren doa bidari; bide iluna argitutzeko hodeia dauka gidari. Zerua dau hark, Kristok agindu, erreinu eta lur barri; beronek deutsoz oinak sendotzen Jainko-herri barriari. **R/.**

### 1. Irakurgaiari

Gauzak txarto ikusten doguzanean lur jota gelditu geintez, eta txarragora jo ere bai. Baina Jainkoak gure gogo jaso egin gura dau, eta dei egiten deusku.

*Escuchemos esta llamada de Dios a ponernos de cara a él, abandonando todo lo que pueda despistarnos.*

*Urratu egizuez bihotzak, ez soinekoak.*

### Joel Profetearen liburutik (Jl 2, 12-18)

Jo turuta Sionen, antolatu baraualdia,  
dei egin batzarrera;  
batu herria batzar santura,  
batu zaharrak, ekarri umeak, baita bularrekoak ere.  
Urten begi senarrak ezkongelatik,  
emazteak ezkon-ohetik.

Negar egin begie atari eta altara bitartean  
abadeek, Jaunaren zerbitzariak.

Esan dagiela: "Parkatu, Jauna, parkatu zeure herriari;  
ez itzi lotsatan zeure ondarea,  
ez dagiela menperatu atzerritarrek,  
ez dagiela esan beste herriek:

Non dabe, bada, euren Jainkoa?" »

Bere lurraldeaganako maiteminez bete zan Jauna  
eta parkatu eutsan bere herriari.

*Jaunak esana*

### Erantzun salmoa

**Ps 050: Erruki, Jauna...** *Udaia'14*



R/. E-rru-ki - Jau - na pe-ka-tu e-gin do-gu ta.

Erruki zakidaz, Jainko, zure maitasun handiaz,  
kendu egizu nire errua zure amaibako errukiaz.  
Garbitu nagizu zeharo nire hobenetik,  
garbitu nire gaiztakeriatik. **R/.**

Espiritu Santuaz beterik, Jesukristogan gorputz bat eta espiritu bat izan gaitezela.

**Berak egin gaizala** zuretzat betiko opari, zure aukeratuekin zerua jaritsi daigun: lehenengo, Andra Maria, Jaungoikoaren Ama beti Birjinearekin, zure apostolu ta martiri dohatsuekin, ... eta santu guztiekin; ba dakigu, euron bitartez zure laguntza izango doguna non-nahi ta beti.

Gu zurekin baketzen gaituen opari hau izan bedi, Jauna, mundu guztiarentzat bake ta salbamen.

**Mundu honetako** ibilaldian, sinismenez ta maitasunez bete egizu zure Elizea: zure zerbitzari **I.** gure Aita Santua, **I.**, gure Artzaina, beste artzain eta abade guztiak eta zeurea dozun herri osoa. Entzun, bihotz onez, zure aurrera deitu dozun familia honen otoitzak. Aita guztiz ona, ekarri zeugana mundu zabalean banaturik dabilozan zure seme-alabak.

**Hildako** gure senideak .../. . eta mundu honetatik zurekin adiskide joan diren guztiak, hartu eizuz, bihotz onez, zeure zeruan; geuk ere sinisten dogu zure aintzaren zorion betea izango dogula betiko, eurekin batean. Jesukristo gure Jaunaren bitartez: Beronen eskuz emoten deutsozuz ondasun guztiak munduari.

HONEN BITARTEZ, HONEKIN ETA HONENGAN  
ZURI, AITA, JAUNGOIKO AHALGUZTIDUN HORRI

## Ebanjelioari

Garizumako ezaugarriak azalkeria hutsean gelditu daitezke Jainkoaren hitzari lotuta ez badagoz.

*La Cuaresma es tiempo de gracia y salvación que vamos marcando con signos que expresan lo que llevamos dentro.*

Egin deiogun harrerea Ebanjelioari.

*J* = 75 **Ebanjelio aurreko gorralpena**



R/. Ain-tza, Je-sus, zu-ri be-ti: Zu za-ra gu-re ar-gi.

## Ebanjelioa

*Tu Padre, que ve en lo escondido, te recompensará*

### Lectura del santo evangelio según san Mateo (6,1-6. 16-18)

En aquel tiempo, dijo Jesús a sus discípulos:

—Cuidad de no practicar vuestra justicia delante de los hombres para ser vistos por ellos; de lo contrario no tendréis recompensa de vuestro Padre celestial. Por tanto, cuando hagáis limosna, no vayáis tocando la trompeta por delante, como hacen los hipócritas en las sinagogas y por las calles, con el fin de ser honrados por los hombres; os aseguro que ya han recibido su paga.

Tú, en cambio, cuando hagáis limosna, que no sepa tu mano izquierda lo que hace tu derecha; así tu limosna quedará en secreto, y tu Padre, que ve en lo secreto, te lo pagará.

Cuando recéis, no seáis como los hipócritas, a quienes les gusta rezar de pie en las sinagogas y en las esquinas de las plazas, para que los vea la gente. Os aseguro que ya han recibido su paga.

Cuando tú vayáis a rezar, entra en tu cuarto, cierra la puerta y reza a tu Padre, que está en lo escondido, y tu Padre, que ve en lo escondido, te lo pagará.

Cuando ayunéis, no andéis cabizbajos, como los farsantes que desfiguran su cara para hacer ver a la gente que ayunan. Os aseguro que ya han recibido su paga.

En verdad es justo y necesario,  
es nuestro deber y salvación  
darte gracias  
siempre y en todo lugar,  
Señor, Padre santo,  
Dios todopoderoso y eterno.

Porque con nuestras privaciones voluntarias  
nos enseñas a reconocer y agradecer tus dones,  
a dominar nuestro afán de suficiencia  
y a repartir nuestros bienes con los necesitados,  
imitando así tu generosidad.

Por eso,  
con todos los ángeles y santos,  
te glorificamos y te aclamamos diciendo:

**Santu**, santu, santua,  
diran guztien Jainko Jauna.  
Zeru-lurrak beterik daukaz zure distirak.  
Hosanna zeru-goienetan.  
Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.  
Hosanna zeru-goienetan.

**Santu zara**, bai, Jauna,  
eta diren guztiek emoten deutesue behar dan gorespena.  
Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren bitartez,  
eta Espiritu Santuaren indarrez,  
Zeuk biziazoten dituzu guztiak eta santutzen,  
eta zeuk diharduzu, beti ta beti, zure herria batzen,  
eguzki alde batetik besteraino opari garbia eskeini dakizun.

**Apalik, beraz, Jauna**, eskatzen deutesugu:  
santu egin daizuzala, zeure Espirituaren indarrez,  
oparitarako ekarri ditugun ogi ta ardao honeik,  
zure Seme Jesukristo gure Jaunaren  
Gorputz eta † Odol izan daitezcan,  
misteriook berak esanda egiten ditugun ezker.

Bihozbarritzeak Jainkoari begira jartea esan gura dau; geure-  
txoari begira egotetik urten, eta Jainkoari uste on osoaz begi-  
ratzea. Bihozbarritzea ez da apur bat hobea izaten ahalegin-  
tzea, Jainkoaren seme/alaba lez agertzea baino.

La verdad es que el Camino cuaresmal se nos antoja duro,  
largo y oneroso, porque no somos capaces de despojarnos de  
nuestros *pesos muertos* y *cadena que nos atan*; seguimos  
atados al consumo, a la comodidad, al mínimo esfuerzo, a la  
telebasura, a la murmuración, a los prejuicios, a las excusas...  
Y solo la Palabra de Dios, meditada, interiorizada y comparti-  
da puede sacarnos de esa oscuridad, y llevarnos a la luz de la  
Pascua. ¿Caminaremos en tal sentido? ¿Nos lo recordará la  
ceniza que nos imponemos?

Ibilbide honetan, senideok, Jainkoaren Berbea dogu janari  
eta gidari. Berari emon behar deutesugu lehentasuna, eta ez  
gure ohituretako beste ezeri. Eskatu daigun grazia hori: Jakin  
daigula Jainkoaren berbea eskuan hartzen, barruan hausnar-  
tzen, geuretzen eta, haren arabera, Jainkoaren seme-alaba  
lez agertzen. Berak eroango gaitu Pazkoetako argitara, eta  
askatuko gaitu kateatuta gaukezan lotura guztietatik.

Gogoratu deigula ezarten dogun hauts honek Jainkoari esku-  
zabaltasunez begira jarten garala eta halantxe jarraitu gura  
dogula.  
.../..

#### **HAUTSAREN BEDEINKAPENA ETA BURUAN JARTEA**

*Con humildad y sinceridad oremos a Dios pidiéndole nos ben-  
diga, y que esta ceniza que nos impondremos sea señal de  
nuestro deseo de conversión y reconciliación.*

#### **Otoitza**

Jainko Jauna, umiltasunak biguntzen zaitu eta damuak  
samurtzen; entzun gure otoitzak, eta bihotz onez isuri  
zure bedeinkapenaren † grazia hautsa hartuko dabene zure

## HAUSTERRE

### Sarrerea

Senideok: Liturgiaren aldi nagusietariko baten sartzen gara gaur: Garizuman. Buruan hautsa ezarriz ezaugarrituko dogu. Jainkoak grazi aldia emoten deuskula ospatuko dogu: gure bihozbarritzerako, bere berbea emoten deuskula. Nahi dogu gure bizitzea Jainkoari begira jarri? Garizumeak irakatsiko deusku hori egiten.

*Hermanos: Dios nos regala este Tiempo fuerte que es la Cuaresma que iniciamos con la imposición de la ceniza. Es un tiempo de gracia que la Liturgia la celebra invitándonos a alimentarnos de la Palabra de Dios, que dará sentido a los signos que utilizaremos: la limosna, la oración y el ayuno; sin ella, estos signos serán superficiales. Busquemos sincerarnos con Dios.*

### Sarrera-abestia

Zure arpegi bila / gabiltza gu, Jauna;  
zu zaitugu argi eta salbamen,  
zu, **Jauna**, biziaren babes.

—Uste on izan Jaunagan eta izan gizon  
Jaso bihotza eta Jaunagan sendo egon  
Zelan dan Aita bere umeentzat bihozpera  
halantxe da Jauna fededunentzat onbera.

### † Abadearen agurra

Gu bihozbarritu gaitazan Garizuma aldi hau  
eta bere Berbea emoten deuskun  
Jainkoaren grazia eta bakea / izan bediz zuekin.  
—Eta zure espirituarekin.

### Otoitza (*Egin daigun otoitz...*)

Señor, fortalécenos con tu auxilio al empezar la Cuaresma, para que nos mantengamos en espíritu de conversión; que la austeridad penitencial de estos días nos ayude en el combate cristiano contra las fuerzas del mal. Por nuestro Señor Jesucristo.

3) Herriak euren minaren minez dagoz ezin-egonetan; bake, poz, argi, egia eta maitetasun bilaketan. Entzun zuk hareen negar antsia, eutsi bideko nekeetan, larri dabilz-ta zure etxe-bila fedearen urratsetan. R/.

### (EDO)

#### **Zabal bihotzok errukirako, sendo bihotzok borrokarako.**

—Gizon-emakume barri, kondairaren eragile  
gizatasun barriaren oinarri eta egile.  
Gizon-emakume barri arriskuen onartzaile,  
fede-bizitzan ausarta, zailtasunetan garaile.

—Gizon-emakume barri, esperantzaren gudari,  
zuzenaren gose-egarri, egi bidean bidari.  
Gizon-emakume barri, ez kate ta ez lokarri,  
askatasunaren jabe eta askatasun-azkarri.

—Gizon-emakume barri, mugaz-gaindiko maitale,  
alkar artean oretuz arraza eta lurralde.  
Gizon-emakume barri, pobreen artean pobre,  
hauekin alkarbanatuz etxeke ogi ta aterpe.

### (EDO)

**Jaungoikoaren hegoenpean:** ze bakean! (2)  
Indar guztiak dituenaren kerizpean (2).  
Jauna, nik dinot: "Nire kerizpe dot zuregan;  
bihotz guztiaz nago Jaunaren eskuetan."

### **Jaunartze ondorengo Otoitza**

Señor, estos sacramentos que hemos recibido hagan que nuestras prácticas cuaresmales sean expresión sincera de nuestra conversión y obren como remedio saludable de todos nuestros males. Por Jesucristo nuestro Señor.

Nire bihurrikeria ezagutzen dot,  
nire hobena beti begien aurrean daukot.  
Zeuri egin deusut pekatu, Zeuri bakarrik,  
zure begietan oker dana egin dot nik. **R/**.

Bihotz garbi bat, Jainko, sortu egizu nigan,  
arnasa bizkorra barritu egizu nire barruan.  
Ez nagizu urrundu zeure aurretik,  
zure arnasa santua ez kendu niri. **R/**.

Zure salbamenaren poza bihurtu egidazu,  
zure arnasa zabalez sendotu nagizu.  
Edegiko deustazuz ezpanok, Jauna,  
eta nire ahoak iragarriko dau zure gorespena. **R/**.

## 2. Irakurgaiari

Ez daigun ahaztu: Jainkoak aukeratuak gara adiskidetzearen  
autorle eta egile izateko.

*Pablo nos recuerda nuestra misión. ¿La conocemos? Hemos  
sido escogidos como agentes de reconciliación.*

*Adiskidetu zaitze Jainkoagaz:  
oraintxe da ondogura sasoi.*

## San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako bigarren gutu- netik (82 Ko 5, 20—6, 2)

Senideok: Kristoren ordezkari gara, eta Jainkoak berak  
gure bitartez erregutuko baleutsue lez da. Kristoren izenean  
eskatzen deusuegu: adiskidetu zaitze Jainkoagaz. Pekatua-  
gaz zerikusirik izan ez eban Ha, Jainkoak gugaitik pekatuagaz  
bat egin eban, guk haren bitartez Jainkoaren salbamina lortu  
gengian.

Jainkoaren lankide garean ezkerro, eskatzen deusuegu, ez  
dagizueta alperrik hartu haren grazia. Izan ere, Jainkoak  
dino: «Ondogura-sasoi entzun deusut, eta salbamen-  
egunean lagundu». Begiratu, beraz: oraintxe da ondogura-  
sasoi, orain salbamen-eguna.

*Jaunak esana*

ESPIRITU SANTUAREKIN BATEAN  
OSPE TA AINTZA GUZTIA  
GIZALDI TA GIZALDI GUZTIETAN.  
- Amen.

Salbatzaileak agindu ta irakatsiari jarraituz,  
bildur barik esan dagigun.

<b>GURE AITA</b> zeruetan zarana santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezela lurrean ere. Emoiguzu gaur	egun honetako ogia; parkatu gure zorrak geuk ere gure zordunei parkatzen deutsegun ezkerro; eta ez gu tentaldira eroan, baina atara gagizuz gatzetik
--	---

† Atara gagizuz, Jauna, gatx guztietatik,  
emoiguzu bakea gure egunotan,  
zure errukiari esker pekatutik gabi bizi izan gaitezan  
eta estualdietan sendo;  
betiko zorionaren itxaropenean,  
Jesukristo gure Salbatzailea noiz etorriko dan zain gagozela.

—Zeurea dozu erregetza; zeureak ospe ta indarra orain eta  
beti.

† Jesukristo gure Jauna, zeuk esana da apostoluei 'bakea iz-  
ten deusuet, neure bakea emoten'; begira zure Elizearen  
sinismenari eta ez gure pekatuei, eta zeure gogoia denez,  
emoiozu elizeari bakea, emon batasuna, errege bizi zara-ta,  
gizaldi eta gizaldietan.

—Amen.

† Jaunaren bakea beti zuekin  
- *Eta zure espirituarekin.*

† Emon deiogun bakea alkarri.

Tú, en cambio, cuando ayunes, perfúmate la cabeza y lávate la cara, para que tu ayuno lo note, no la gente, sino tu Padre, que está en lo escondido; y tu Padre, que ve en lo escondido, te recompensará.

## HITZALDIA

Memoricemos estas observaciones de Jesús en el evangelio que acabamos de proclamar: "*Tú, cuando des limosna..., cuando ores..., cuando ayunes...*". No dice que **'para hacerlo mal, no lo hagas'**, sino que lo hagas de modo que solo se entere *tu Padre que ve en lo escondido*.

Ez gara ez egitekoak, edo ez emotekoak..., ez gara gaizki-leak... Baina Jesusek zelan egin behar dogun esaten badeusku, zeozergaitik izango da. Ez da egia sarri baino sarriagotan azalkeiaz jokatzeko dogula, eta Jainkoagazko hartu-emonak epelegiak edo hotzak izaten doguzala?

¿A qué nos llama la Cuaresma? En primer lugar a **convertirnos**; y, en segundo lugar, a **manifestarlo a través de signos** sinceros, no superficiales. Convertirse significa volverse cara a Dios, sin temores, sin racanerías, con plena confianza; no calculadamente, pensando en cuánto me podría exigir si le doy tanto, o cuánto me podría dar si yo le ofrezco tanto, tratando de minimizar nuestra ofensa y esperando lo máximo de su parte...

Jainkoagaz zeken baino zekenago jokatzeko dogu, ezelango eskuzabaltasun barik (neuk, behintzat), apur batez nahikoa dogula-ta. Ezin dogu ulertu Jainkoak ez deuskula emoten gure zekenkeriaren arabera; hark bera dan guztia baino ezin deuskula emon, eta gure zoriona bardintasunean erantzuten deusogunean dala betea. Bildur gara geu ezerez barik geldituko ete garan, eta, badaezpada, ondo begiratzen deusogu geureari.

**Berak**, saldua izan zan gau haretan,  
ogia hartu eta, zuri eskerrak emonez, zatitu eban,  
eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

HARTU EIZUE TA JAN GUZTIOK HONETATIK:  
HAU NEURE GORPUTZA DA-TA,  
ZUENTZAT EMONGO DANA.

**Afal ondoan**, bardin,  
Kaliza harturik eta zuri eskerrak emonez,  
bedeinkatu eban eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

HARTU EIZUE TA EDAN GUZTIOK HONETATIK:  
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-TA,  
ITUN BARRI TA BETIKOAREN ODOLA,  
ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT  
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.  
EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.

## Hau da sinismenaren misterioa

**\* Zure kurutze ta biztueraz munduaren Salbatzaile zarana, salbau gagizuz, Jesus Jauna.**

**Horregaitik**, Jauna, guk,  
zure Semearen nekaldi osasungarria  
eta hilen artetik biztuera  
eta zeruratze miragarria gogoratu,  
haren azken etorrerea itxaroten dogula,  
zuri eskerrak emoteko eskeintzen deusugu  
opari bizi eta santu hau.

**Begira, Jauna**, zure Elizearen eskeintza honi:  
ikus eskeintza honetan  
zurekin baketu gaituen Jesukristoren oparia;  
iguzu, Jauna,  
zure Semearen gorputz-odolak hartzen ditugunok,

zerbitzarion gainera: Garizumako egintzak zintzo betez, gogo-bihotzak garbiturik heldu daitezaz zure Semearen Pazko-misterioak ospatzera. Errege bizi da-ta.

### † BIHOZBARRITU ZAITEZ ETA SINISTU BARRI ONA

#### Abestia

**Jauna, zugana gatoz** guztiz damaturik  
zure aurrean gagoz pekatuz beterik,  
barriri ibili gara galduta zu barik:  
pekatu egiten dogu zugaz izan ezik.

Ba dakizu zer garan: herri pekatari  
horrexegaitik gagoz beti deika zuri,  
entzun egiozu, ba, zure herriari:  
parkatu gure hutsak, erruki!, erruki!

#### ESKARIAK

† Ponernos *de cara a Dios* significa que salimos de nosotros para preocuparnos del hermano. Expresémoslo en nuestra oración universal:

**HERRI OTOITZERAKO**  
BATEK DANEK Udaia'17



V/. E - gin dai-gun o - toitz. R/. Jain - ko Jau - na, zeu - gan do - gu us - te o - na.

—Por la Iglesia: para que se manifieste pobre, solidaria, acogedora, y promueva la reconciliación entre los hombres y mujeres de nuestro tiempo, *egin daigun otoitz*.

—Hautsa ezartze honek Jainkoari begira bizi izan gura dogula gogoratu deigun Garizuma aldi guzti honetan, *egin daigun otoitz*.

—Bilatu daigun limosna egitea gure inguruko behartsuak go-goan izanik eta euren egoera geure ardura bihurtuz, *egin daigun otoitz*.

—Para que la oración nos abra a la escucha de la Palabra de Dios y ésta nos haga solidarios con los que sufren violencia, marginación, desprecios, soledad o abandono, *egin daigun otoitz*.

—Para que las prácticas cuaresmales nos hagan testigos de reconciliación y valientes en la denuncia de las injusticias y en el anuncio de la misericordia y el perdón, *egin daigun otoitz*.

† Atara gaizuz, Jauna, azaleko bizikeratik, eta biztu guran zure berbeaganako zaletasuna. Jesukristo gure Jaunaren bi-tartez. —Amen.

### EUKARISTIAREN LITURGIA

#### Eskeintza

Bedeinkatua zu, Jauna, zeru-lurren Jainkoa, zeure esku zabaletik hartu ditugu orain ekarri deusuguzan ogi-ardauok, lurraren indarrak eta gizakiaren lanak sortuak: honeexek egingo jakuz biziaren ogi ta betiko zorionaren edari.

- **Bedeinkatua zu, Jauna, orain eta beti.**

Senideok: egin daigun otoitz, guztiok batean, Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskeintzerakoan.

- **Jainkoa goresteko eta gizakiak salbatzeko.**

#### Oparien gaineko otoitza

Oh Dios y Padre nuestro:

Tu hijo Jesús nos dio todo

para que seamos libres para ti y para los hermanos.

Acepta estas ofrendas,

y hazlas pan de felicidad y vino de alegría

para nuestro mundo hoy.

Te lo pedimos por Jesucristo nuestro Señor.

### III. EUKARISTI OTOITZA

V/. Jauna zuekin.

R/. Eta zure espirituarekin.

V/. Gora bihotzak.

R/. Jaunagan daukaguz.

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari. R/. Egoki da eta zuzen.